0 AURREKARIAK

BiscayTIK Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako proiektua da, nazioarte mailan izaera berritzaile eta aitzindari nabarmena duena, helburutzat honako hauek dituelarik: komunikazio kanal berri baten bidez, Internet bidez, Administrazioa herritarrengana hurbilaraztea bien arteko elkarrekintza erraztuz; horrez gain, Bizkaiko Udaletako barne-kudeaketa eta herritarrekiko harremana hobetzeko tresna informatikoak homogeneizatzea; eta Bizkaia informazio teknologietan eta Udal Administrazioaren ezagupenean nazioarteko erreferentzia bilakatzea.

Helburu hau betetzeko, proiektuak hiru ardatz ditu,

- Herritarrentzako posta elektroniko zerbitzua.
- Udalerrientzat programa informatikoak eta herritar bideratzea duen web ataria.
- Nazioarteko erreferentziadun Teknologia Zentro bat sortzea.

1 XEDEA

Lehiaketa honen xedea Udaletxe berrietarako BiscayTIK Fundazio-ko 15 toki-erakunderen migrazio-zerbitzuak BiscayTIKen kontabilitate-moduluaren web-bertsiora da.

2 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Dokumentu honen eta bere eranskinen helburua da 15 toki-erakunderen migrazio-zerbitzuak BiscayTIKen kontabilitate-moduluaren web-bertsiora.

Erabiltzailearen esperientzia hobetzeko asmoz, 15 tokiko entitateren migrazioa egingo da BL.SicalWeb bertsio berrira. Funtzionaltasun hauek ditu, besteak beste:

- Tokiko entitateei aplikatu beharreko kontabilitate-araudian jasotako espezifikazioetara egokitzen da, HAP/1781/2013 Agindua, Eredu Arruntarena, HAP/1782/2013 Agindua, Eredu Sinplifikatua eta Oinarrizkoa. Eta foru-dekretu berria.
- Berankortasun-txostenak eta XML formatuko fitxategia egiteko aukera ematen du, hiruhilekoko berankortasun-txostenak prestatzeko gidarekin bat etorriz (15/2010 Legearen arabera).
- Kontuak ematea barne hartzen du Estatuko Administrazioko Kontu-hartzailetza Nagusiaren 2015eko azaroaren 13ko ebazpenaren formatuen arabera, eta baliagarria da kanpo kontrolerako kontrol-organo autonomiko guztietarako eta Kontu Auzitegirako.
- Tokiko entitateen aurrekontuaren eta likidazioaren aurkezpen telematikoa.
- Ekonomia eta Ogasun Ministerioak eskatzen duen informazioa (XBRL LENLOC eta PENLOC fitxategiak).
- Egonkortasunaren Legean xedatutako informazioa emateko aukera ematen du.

- HAP/2105/2012 Aginduan jasotako tokiko entitateen informazioa hornitzeko hiruhilekoko betebeharrak betetzeko inprimakiak sortzen ditu, TRIMLOC 2016 taxonomiara egokituta, PMP lortzea 635/2014 Errege Dekretuari jarraikiz.
- Aldizkako zerga-informazioa (109 Eredua, 347 Eredua, BEZa).
- Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekin informazioa partekatzea aurrekontu-ordainketen enbargo-hitzarmenerako.
- Entitateaniztasuna eta ekitaldianiztasuna.
- Aukera ematen du aldi berean zenbait ekitalditan lan egiteko.
- Aurrekontuaren lanketa deszentralizatua, aurreproiektua izapidetzea eta onestea (lurralde-kodearekin eta jarduketa-planarekin, tokiko gobernuaren modernizazio-legeari egokituta).
- Modulu guztien izapideak eta kudeaketa deszentralizatua: gastuak, diru-sarrerak, aurrekontuz kanpokoak, hirugarrenen kudeaketa, gastu-proiektuak, etorkizuneko gastuak eta diru-sarrerak... Hori guztia dokumentu-kudeaketarekin, sinadura elektronikoarekin eta espedienteekin integratuta.
- Kutxa finkoko aurrerakinen eta justifikatu beharreko ordainketen kudeaketa, gaitutakoarentzako modu deszentralizatuan
- facturae formatuan sartutako sinadura elektronikoarekin igortzen diren fakturak sortzeko aukera ematen du, 25/2013 Legean deskribatutako ezaugarriekin
- Aplikazio anitzeko eta proiektu anitzeko eragiketak gastu, diru-sarrera eta aurrekontuz kanpokoetan
- Prestatzeko sistema
- Kredituak aldatzeko espedienteak simulatzea eta kontabilitatean jasotzea, eta kreditu-gerakinak automatikoki sartzeko aukera ematea
- Kreditu-gerakinaren eta diruzaintzako gerakin likidoaren jarraipena
- Jasotako dirulaguntzen kudeaketa
- Kontabilitate analitikoa (Kostu Zentroak). Estatuko Administrazioko Kontu-hartailetza Nagusiaren 2011ko uztailaren 28ko ebazpenera egokitzea, bai eta Zerbitzuen Benetako Kostuaren kalkulua ahalbidetzen duen modulu bat ere
- Proiektuen eta superproiektuen kudeaketa
- BEZaren kudeaketa, hainbanaketa, jarduera bereizgarriak eta komunitate barruko eragiketak barne hartuta
- Enbargo eta endosuen kudeaketa
- Banku-kontziliazioaren modulua CSB 43 banku fitxategia sartzearen bitartez

- Menuen pertsonalizazioa eta profilen definizioa erabiltzailearen arabera

Hauexek dira zerbitzua emateko egin beharreko jarduerak:

- Plataforma berria 15 entitatetan zabaltzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak
- Web-bertsioaren gaur egungo bertsioa eguneratzea

- Ezartzeko, konfiguratzeko, prestatzeko eta abian jartzeko zerbitzuak, Entitate bakoitzari dagokion ezarpena egiteko beharrezkoak diren zeregin guztiak gauzatuko dira, bai eta zabaldu den entitate bakoitzeko erabiltzaileak prestatzeko eta ezartzeko beharrezkoa dena ere. Bestalde, migratzeko egindako zereginen erabiltzaile teknikoen prestakuntza egingo dada
-

2.1 Eragindako moduluen deskribapena

BiscayTIKen kontabilitate-modulua SICALWIN software-an dago oinarrituta, 8.36.000 bertsioan eta hurrengoetan. Halaber, GAC, SII eta Dirulaguntzak moduluak gehitu dira.

Sistemaren modulu nagusiak

Ekitaldi berria prestatzea

Ekitaldi berria sortzea. Irekierako idazpena aurrekontuen modulura mugatzen da, eta automatikoki egiten da. Emaitza ekonomikoa erregularizatzen du, dagokion idazpena sortuz.

Behin betiko aurrekontua irekitzeko eta sartzeko aukera ematen du, erakundeak zehaztutako loturekin edo aurreko ekitaldiko aurrekontua automatikoki luzatuta. Aurrekontuko egitura berriak sor daitezke, edo, bestela, aurreko ekitaldietako aurrekontu-egiturei eutsi ahal zaie.

Kredituak lotzeko poltsak sortzeko aukera ematen du. Horiek desberdinak izango dira, erakunde bakoitzari ezartzen zaion araudiaren arabera.

Sortzen diren kontabilitateko eragiketetan, ekitaldi batean bete ez diren konpromisoak jasotzen dira, ekitaldi arruntean aplikatu beharko direnak. Eragiketa horiek aukera ematen dute mota horretako obligazioak erregularizatzeko, geldikinak sartzean sortutako kredituekin.

Geldikinak sartzea.

Luzatutako aurrekontuaren aplikazioak eta eragiketak berresleitzea behin betiko aurrekontuan.

Aurrekontua definitzea eta onestea

- *Aurrekontua prestatzea*

Modulu honen bidez hau egin daiteke:

- Aurrekontuaren egitura zehaztu (organikoa / ekonomikoa / funtzionala).
- Aurrekontuaren bertsio desberdinak sortu, aurreko aurrekontuko datuak eta aurreko ekitaldietan egindako gastuak oinarritzat hartuta.
- Aurreko ekitaldiko aurrekontua luzatu.
- Luzatutako aurrekontua behin betiko aurrekontura sartu, aurrekontua onetsitako egunean sartutako eragiketa guztiak barne hartuta.
- Aurrekontua behin betiko ireki.

Aurrekontua betearaztea

- *Gastuak betearaztea*

Sistemak aukera ematen du Gastuen aurrekontuko eragiketa hauek kudeatzeko eta konbinatzeko:

- Kreditua atxikitzea
- Baimenak
- Erabilpenak
- Obligazioak onartzea
- Ordainketa agintzea
- Ordaintzea
- Eragiketa mistoak
- Ordainketa arruntak itzultzea

Gastuen proiektuak izeneko modulua ere badu. Horrek aukera ematen du proiektuak zehazteko, gastuak eta sarrerak egiteko aurrekontuko eragiketak haiei esleitzeko, eta aurrekontuaren emaitza eta diruzaintzako geldikina kalkulatzeko aintzat izan beharreko finantzaketa-desbideratzeak kalkulatzeko.

Horrez gain, aukera ematen du beste eragiketa-mota batzuk egiteko, itxitako aurrekontuetan (obligazioen saldoak zuzentzea eta agindutako ordainketen saldoak zuzentzea) edo etorkizuneko ekitaldietan (kreditu-atxikipenak, baimenak eta erabilpenak).

- *Sarrerak tratatzea*

Sistemak aukera ematen du Sarreren aurrekontuko eragiketa hauek kudeatzeko eta konbinatzeko:

- Hitzartutako sarreren konpromisoak
- Egindako sarreren konpromisoak
- Eskubideak onartzea
- Kobratzeko dauden eskubideak indargabetzea
- Eskubideak biltzea
- Sarrerak itzultzea likidazioak baliogabetzeagatik

Horrez gain, aukera ematen du beste eragiketa-mota batzuk egiteko, itxitako aurrekontuetan (kobratzeko dauden saldoak zuzentzea) edo etorkizuneko ekitaldietan (sarrera-konpromisoak).

- *Aurrekontua aldatzea*

Sistemak behar diren funtzionaltasunak ditu aurrekontuan egindako aldaketak behar bezala tratatzeko, besteak beste, hauek:

- Sistemak aurrekontuan egindako aldaketek izandako egoera guztiak islatuko ditu: aurrekontua zuzentzen duen organoak eskaera baliozkotzen duenetik, onesten eta kontabilizatzen den arte.
- Aldaketak kontabilizatu aurretik, sistemak behar bezala egiaztatuko du aurrekontuko aldaketaren zenbatekoa berez finantzatzen den, hau da, handiagoa den gastu bat handiagoa den sarrera batekin edo gastu txikiago batekin finantzatu behar den. Edo, bestela, ondasunak besterenduz edo diruzaintzako geldikinarekin, etab.

Aurrekontuz kanpoko kontabilitatea

Aurrekontuz kanpoko kontabilitatean, aurrekontuan inolako ondoriorik ez duten eragiketak biltzen dira.

Hau jarri behar du agerian:

- Ekitaldiaren hasierako saldoa.
- Ekitaldian izandako karguak eta abonuak.
- Ekitaldiaren amaierako saldoa.

Finantza-kontabilitatea

Finantza-kontabilitateak barne hartzen du Toki Administraziora egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorreko kontuetan oharrak jasotzea, finantza-, ondare- edo ekonomia-ondorioak dituzten eragiketa ekonomiko guztiak kontuan hartuta, eta aukera ematea kudeaketaren emaitzak lortzeko ikuspegi ekonomikotik.

Kontabilitateko teknikako funtzio orokorrez gain, sistemak erabilgarritasun hauek ditu:

- Erregularizatzeko idazpena automatikoki sortzen du.
- Aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko eragiketek dagozkien idazpenak sortuko dituzte Kontabilitate Orokorrean.
- Zuzeneko idazpenak egiteko aukera ematen du.
- Kontu Orokorraren txostenak sortzen ditu.

Ekitaldia ixtea

Sistemari esker, bi ekitaldirekin lan egin daiteke aldi berean, behin-behineko itxiera eta irekiera edukita. Bi ekitaldirekin lan egiten den bitartean, sistemak hainbat sailetako eragiketen faseak eta saldoak kalkulatuko ditu berriz, bi ekitaldietan.

Behin betiko ixteko prozesua:

- Amaitzen den ekitaldiko finantza- eta ondare-kontuetako saldoak irekitzen den ekitaldira lekualdatzea.
- Amaitzen den ekitaldiko aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko eragiketen saldoak irekitzen den ekitaldira lekualdatzea.
- Kreditu-geldikinak kalkulatzea.
- Kontabilitatearen itxierako idazpena egitea.

Kontabilitate-kontsulten modulua:

Berritasun garrantzitsu bat da kontabilitate-kontsulta guztiak berriz diseinatzea. Kontsultak BL.Única plataformaren mahaigainetik egikaritu ahal izango dira widgeten bitartez, erabiltzaileak berak definitutako zuzeneko atzipenen bitartez edo BL.SicalWeb delakoaren bitartez, eta, horrela, moldakortasun eta bizkortasun

gehiago eskainiko dira kontsultetan. Era horretan, entitateko kudeatzaileei kudeaketa ekonomikoaren jarraipena egiteko aukera emango zaie. Kontsulten ezaugarriei dagokienez, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- Inprimaki guztien homogeneizazioa
- Informazioaren arrazionalizazioa
- Diseinu- eta erabilgarritasun-hobekuntzak
- Datuan sakontzeko edo beste kontsulta batzuekin lortzeko aukera ematen duten ekintzak gehitzea, eta informazio guztia klik bakarrean eskuratzea.
- Iragazkien bilaketa, lokalizazioa errazteko, bai eta gogoko iragazkiak definitzeko aukera ere.
- Aplikatutako iragazkien informazioa
- Kontsulta-emaitza batean iragazteko aukera
- Informazio gehigarriaren panelak.
- Maneiu erraz eta intuitiboa

2.2 Ingurune teknologikoa

Honako hauek dira ingurunearen ezaugarriak:

- Zerbitzaria
  - Windows 2019
  - Ubuntu Server
- aplikazio-zerbitzaria
  - IIS
  - Apache tomcat 9
- Datu basea
  - MS Sql Server 2017
- Sekurizazioa
  - SSL / HTTPS

3 KONTROLA ETA JARRAIPENA

Atal honetan proposatu behar diren eginkizunen helburua aldi oro zerbitzuaren egoerari buruzko ikuspegia izatea da. Horrela, gerta litezkeen desbideratzeak zehazteko eta behar diren ekintza zuzentzaileak aplikatzeko aukera ematen du.

Helburu hori betetzeko oinarrizko tresnak jarraipena egiteko txostenak dira. Txosten horiek dagozkien bilera eta batzordeetan aztertuko dira.

Lizitatzaileak bere proposamen teknikoan, ahalik eta erarik xehatuenean, proposatzen duen jarraipeneko kontrol-eredua deskribatu beharko du, zerbitzua ematean aplikatzeko

Enpresa esleipendunak arduradun bakarra ezarriko du BiscayTIK Fundazioarekin; hark BiscayTIK Fundazioaren agindu orokorrak jasoko ditu, eta ardura horren bitartekaritzat jokatuko du. Hauek izango ditu bere gain:

- Zerbitzu-mailaren akordioaren (ZMA) azpian dauden garapeneko eta mantentze-lanetako zerbitzu guztien kontrola eta jarraipena, enpresa esleipendunaren ardurapean gauzatu beharreko zerbitzuei dagokienez.
- BiscayTIK Fundazioarekiko harremanak zentralizatzea eta koordinatzea.
- BiscayTIK Fundazioarekin antolatutako bileretako aktak egitea, eta, bertan, hartutako erabakien berri ematea. Hasiera batean, astean behin egingo dira bilerak, eta abian dauden zereginen jarraipena egitea izango da helburu nagusia, baita desbideraketak eta zereginon aurrerapeneko puntu kritikoak edo geldiarazleak antzematea ere.

Lantaldeko koordinatzaileak Fundación BiscayTIK Fundazioak eskatuz gero Fundación BiscayTIK Fundazioaren egoitzan egon behako du bi ordutan, asko jota.

Lanak bukatutakoan, Hornitzaileak egindakoa fakturatuko du onartutako balorazioan ezartzen denaren arabera. BiscayTIK Fundazioak aurkeztutako lanak aztertuko ditu aldez aurretik onartutakoarekin bat datozela egiaztatzeko eta, azkenik, bere oniritzia emango die.

Fundación BiscayTIK Fundazioak egindako lanen gaineko kalitate kontrola egitea beretzat gordetzen du. Horrela, gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak gaitzetsi ahalko ditu, bere irizpide propioei jarraiki. Hori guztia Fundación BiscayTIK Fundazioak atzerapenen edo kontrataturiko zerbitzuen kalitate baxuaren ondotik jar ditzakeen penalizazioen kaltetan izan gabe egingo da. Halaber, kontratua ebazteko arrazoi justifikatua izan daiteke.

4 BALDINTZA BEREZIAK

Enpresa lizitatzaileek ezin izango dute hizkera sexistarik erabili, proposamenak prestatu eta aurkezteko orduan. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak ezin izango du hizkera sexistarik erabili, idatziz edo modu digitalean sortutako behin betiko edozein dokumentutan; era berean, datuak sexuaren arabera banandu beharko ditu, pertsonei buruz sortzen diren estatistika guztietan. Eta hori, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 2.3 artikuluak dioena betez, non errespetatu beharreko printzipio orokorrak adierazten baitira.

4.1 Lantalde eta betekizunak

Esleipendunak beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak jarri beharko ditu, egokitzen dizkioten zerbitzuak modu egokian egiteko.

Esleipendunak mugikortasun geografiko osoa izango du eta Fundación BiscayTIK Fundazioek eskatutako tokietan eman beharko du zerbitzua. Lantalde osoa edo zati bat lekualdatu behar badu, ez du kargu osagarririk kobratuko. Halaber, esleipendunak Fundación BiscayTIK Fundazioak beste enpresa edo erakundeekin adosten dituen bileretara joateko konpromisoa hartzen du.

Zerbitzua ezarritako epean gauzatzeko beharrekoa den lantaldea proposatuko du adjudikaziodunak. BiscayTIK Fundazioarekin koordinazio-lanak egingo dituen beste pertsona bat egon beharko da. Egin beharreko lanen plangintza, jarraipena eta kontrola egiteaz eta horien kalitate-maila egiaztatzeaz arduratuko da. Pertsona horrek jasoko ditu BiscayTIK Fundazioaren argibide orokorrak, eta erantzukizun horren hizketakidea izango da.

Fundación BiscayTIK Fundazioak lantaldeei buruzko ikuskaritzak egiteko eskubidea dauka, gutxieneko taldea lanean ari dela egiaztatzeko, eta hori ez betetzea, zigorrerako motibo izango da.

Enpresa esleipenduneko langileek beharrezko dituzten ekipamendua, baimenak, komunikazioak eta joan-etorriak enpresak berak ordaindu beharko ditu.

Esleipendunak zerbitzua ematen duten langileen kontrola eta ikuskapena gauzatuko du, eta gaixotasun, opor edo hutsegite kasuetan kualifikatutako beste langile batekin ordeztuko du.

4.2 Lanen kontrola

BiscayTIK Fundazioak egindako lanen gaineko kalitate kontrola egitea beretzat gordetzen du. Horrela, gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak gaitzetsi ahalko ditu, bere irizpide propioei jarraiki. Hori guztia BiscayTIK Fundazioak atzerapenen edo kontrataturiko zerbitzuen kalitate baxuaren ondotik jar ditzakeen penalizazioen kaltetan izan gabe egingo da. Halaber, kontratua ebazteko arrazoi justifikatua izan daiteke.

Enpresa esleipendunak irtenbide mekanizatuak jarriko ditu zerbitzuaren kudeaketa eta jarraipenerako.

4.3 Entregatzeko plangintza eta mugarriak

Karatulako 5. paragrafoan adierazitako gehieneko epean egin beharko ditu lizitatzaileak kontratu honen xede diren lanak. Lizitatzaileak plangintza zehatz bat eta proiektuaren xede diren entregagaien emate-mugarriak jaso beharko ditu proposamenean.

Plangintzaren hobetzea eta xehetasun-maila baloratuko dira.

4.4 Jabetza intelektuala

Esleipendunak BiscayTIK Fundazioari lagako dizkio kontratu honen baitan eratutako plan, sorkuntza eta dokumentu guztien egile-eskubideak eta jabetza intelektualeko eskubideak. Jabetza intelektualari dagozkion eskubideen lagapenak ez du denbora-mugarik izango eta esleipendunak kobratuko duen ordainsariaren barne dagoela ulertuko da. Ondore horietarako, BiscayTIK Fundazioak esleipendunaren lana orokorki aldatzeko, eraldatzeko, erreproduzitzeko, banatzeko, argitaratzeko, erakusteko, erabiltzeko eta ustiatzeko eskubidea izango du.

Esleipendunak ezin izango du ikerketa osoa edo zati bat erabili, ez zuzenean ezta zeharka ere, munduko edozein lekutan egin lezakeen beste enkargu batean.

Lizitatzaileak BiscayTIK Fundazioari eman beharko dizkio fitxategi guztien iturriak, baita erabilitako baliabide teknologiko guztiak ere.

4.5 Bermealdia

Enpresa adjudikaziodunak era egokian burutu beharko ditu kontratatu diren lanak eta horietan egon daitezkeen eta kontratuaren indarraldian jakinaraziko zaizkion akatsak zuzendu beharko ditu. Kontratuaren indarraldia amaitu ondoren bermealdiak indarrean jarraituko du gutxienez sei hilabete epean.

Bermealdia baliagarria da BiscayTIK Fundazioko pertsonalak lanen betearazpenean edo garapenean aztertu eta berrikusi arren edo frogaketa, balorazio edo emate partzialetan onartu arren.

Enpresa adjudikaziodunaren konpromisoa da bere akatsen edo beste aplikazioen edo kanpoko esku hartzeen ondorioz ez eragindakoen funtzionaltasun ezak konpontzea eta BiscayTIK Fundaziarentzat inolako kargurik eragin gabe egitea.

4.6 Genero ikuspegia

Dagozkien proposamenak egin eta aurkezteko, enpresa lizitatzaileek hizkera ez sexista erabili beharko dute. Halaber, enpresa esleipendunak, kontratua indarrean den bitartean, hizkera ez sexista erabili beharko du behin betiko dokumentu guztietan, izan idatziak edo digitalak, eta, pertsonei dagokien edozein estatistika egiteko, datuak sexuen arabera banandu beharko ditu. Hori guztia Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluari jarraikiz, zeinean errespetatu beharreko printzipio orokorrak zehazten baitira.

Enpresa esleipendunak kontratuaren helburu den prestazioa egin izanaren azken justifikazioan, hala badagokio, txosten bat aurkeztu beharko du, kontratazioan generoak izan duen eraginari buruz, adierazleak eta datuak sexuen arabera banatuta, hala erabiltzaileenak nola onuradunenak, edo zerbitzua ematen duten langileenak, aplikatutako berdintasun-neurriak ebaluatzeko aukera izateko.

5 ARGIBIDEAK

Edozein kontsulta edo argibiderako eta eskaintzak bidaltzeko, BiscayTIK Fundazioak ondorengo helbidea jartzen du enpresa eskaintzaileen eskura:

eskaintzak@biscaytik.eus

Izenpetua: Alaitz Etxeandia Arteaga

BiscayTIK Fundazioko Zuzendari Nagusia